

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko azaroaren 23a • 202. zka.

Adi!

Abenduaren 1etik
aurrera, astero,
bailarako
informazio guztia
zure eskura.

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

Matiz



Gonak, alkondarak,
frakak, trajeak eta
gabardinak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

l o r a m e n d i n g a u d e



FARMA

BIZI
PARAFARMAZIA

**Edertasuna eta osasuna
zure esku Farma Bizin**


... eta gainera haurrentzako
produktuak eta elikagaiak

Loramendi, 8
20550 ARETXABAETA ☆ Tel.: 943 77 18 18



ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
ESTETIKA



 garbitze

GARBIKETAK

Lehor eta busti
garbiketa

Mota guztietako
jantzien garbiketa

Loramendi, 6
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 53 61

l o r a m e n d i n g a u d e

Udala plan estrategikue eitten dabil, zertan inbertiru biheko lauke dirue?



Jose Antonio Lezeta

Mondrauetik etorri barrixa naz Atxabaltara. Ez dot ezebe faltan botaten. Pasiuan eitteko, gainera, Mondrau baino hobeto dau hau.



Mari Carmen Porto

Parkiek falta die herrixen. Etxiak be oso karu daz, eta hori Udalaren arduria be badala pentsetan dot. Bestela, ez gaz hain txarto be Atxabaltan.



Tomas Fernández

Auzuetan inbertiru biheko lauke Udalak. Adibidez, Portasolgo gaztiekin kalera etorri bihera daukie jolas-tera.



Miren Galdaera

Babestutako etxiek ein biherko lauke Udalak. Dirua ez daukienendako holako etxiak biher diela uste dot.

ESKUTITZAK



ARETXAGAZETA BI ASTEZ JARRAIAN

Kaixo bazkide: Gaur, eguena, 202. alea jaso duzu etxean, eta datorren astean, abenduaren 1ean 203. alea etxeko buzoian izango duzu. Alea astebetetz aurreratu dugu, Goienkariaren lehen zenbakiarekin batera kaleratu gura genuelako. Abenduko alea aldaketa batzuekin etorriko da. Alde batetik, Goienkaria, bailarako aldizkariarekin batera banatuko da. Bestetik, orrialde gutxiago izango ditu, orrialde batzuk Goienkarira pasatu baitira. Baina ez zaitez horregatik beldurtu, aurrerantzean gai berriak landuko ditugu eta herriko aldizkarian. Aretxagazetak, bestalde, hamabostekaria izaten jarraituko du. Horregatik, nahiz eta hurrengo aste-betera kaleratu, urteko azken zenbakia, 204. hain

zuzen, abenduaren 21ean izango dugu gure artean. Aldaketa hauen barri eman ondoren, bi produktua zuten gustukoak izango direlakoan, agur bero bat.

Aretxagazeta aldizkaria

ELGARREKIN ERAIKI DEZAGUN XIBEROKO BOTZA!

Joan den martxoan, Xiberoko botzak kanpaina zabal bat hasten zuen Euskal Herri osoan, egoitza berri baten eraikitzeko asmoarekin.

Xiberoko botzak nahi dituz eskertu orai arte beren laguntza helarazi duten guztiak.

Xedearen gakoak estudio berezi baten eraikitzea da zointan emanaldiak zuzenean grabatzen ahalko diren. Programazio berri bat bidean jarri nahi da, eztabaida publiko musika emanaldi

zuzenean eskainiz.

Hori burutzeko ekipamendu berria erosi behar da, eta biziki garestia da: 200.000 libera (5.000.000 pta).

Behar beharrezkoa da irrati tresneria berri horren lortzea, hori baita Xiberoko Botzaren eguneroko lan tresna.

Hortarako Xiberoko Botzak azken dei bat egiten du euskal gizarteari, sozial, kultur, ekonomia arloko jendeari. Denek elkarrekin eraiki dezagun Xiberoko Botza! Abendu bukaeran, bestalde, Xiberoko Botza kanpaina amaituko da.

Xiberoko Botza

Aretxagazeta

202. zenbakia
2000ko azaroaren 23an.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaleak:
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

HAUR ESKOLARENTZAT DIRU LAGUNTZA LORTZEKO HITZARMENA EGIN DA

Azaroaren 13an egindako osoko bilkuran udalak Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailarekin hitzarmena sinatzea onartu zuen. Erabaki honekin, Eusko Jaurlaritzak Aretxabaletako haur eskolak bete beharreko eskari teknikoak ezarriko ditu. Horrez gain, orain arte ematen ez zuen diru laguntza ere emango dio Pausoka haur eskolari, 3 milioi eta erdi pezetakoa hain zuzen.

BIKOTE EZKONGABEEN ERROLDA MARTXAN

Orain hilabete batzuk, martxoaren 26an hain zuzen, batasun zibilen errejistroa sortzea onartu zen. Aste honetan Bergarako udaletik errejistro horren kopia ekarri da, hemen ere antzekoa egiteko. Beraz, aste honetan ez bada datorrenean jarriko da martxan aipatutako errola eta ezkondu barik elkarrekin bizi diren bikote guztiak, baita sexu berekoak ere, izena ematera joan daitezke udaletxera. Errejistro edo errola horren helburua ezkondukoen duten babes sozial, ekonomiko eta juridiko berbera eskaintzea da.



Azaroaren 7an Aretxabaletako industrialde berriaren lehenengo harria jarri zen

Industrialde bateratua sortzea onartu du udalak

Joan zen hilaren 13an egindako osoko bilkuran, Debagoienan industrialde bateratua sortzea onartu zuen udalak. Spilurrek, gaur egun eskualdean dauden hiru industrialdeen jabe nagusiak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak orain bi urte hartu zuten erabaki hori, eta orain eskualdeko udalak, euren oniritzia ematen hasi dira. Proposamena onartu duen lehenengo Aretxabaletakoa izan bada ere, datozen egunetan Bergara eta Oñatiko udalek ere onartuko dute.

Erabaki horren arabera, gainera, enpresa batek De-

bagoienako herri bateko industrialdean lekurik izango ez balu, beste herri batean kokatzeko samurtasuna izango luke.

Debagoienako Industrialdea S.A.

Industrialde bateratuak, Debagoieneko Industrialdea S.A. izango du izena eta datorren urteko martxoan ingururako eratuta egotea espero du Koldo Azkoitiak, Debagoieneko industrialdeetako gerenteak. Industrialde berri horren lehenengo lana, industri erabilerarako lur sailak bilatzea izango da.

URKULUKO AZKEN DATUAK

Udazkena lehor hasi bazen ere, azaroan sartzearekin batera heldu zen euria eta geroztik ez da nekatu. Urkuluko uraren mailak ere nabaritu du hori, nahiko igoera garrantzitsua izan du eta. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak urriaren 9an emandako datuen arabera uraren maila 326,34 metrora zegoen, urtegiaren ahalmenaren %58,71an hain zuzen. Azaroaren 17an jasotako datuen arabera, osterara, 328, 23 metrora dago ura, ahalmenaren %68,87an.

Hala ere oraindik asko falta zaio Urkuluko urtegiari guztiz betetzeko, bertatik ateratzen den ur kantitatea ere ez da makala eta. Gaur egun, Eskoria-tza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Antzuola Elgeta, Soraluze eta Oñatira eramaten da bertako ura.



BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
Aretxabaleta



GERIATRIA LAGUNTZAILE IKASTAROA ANTOLATU DU UDALAK

Aretxabaletako udalak geriatría laguntzaile ikastaroa antolatu du langabezian dauden emakumeentzat. Ikastaroa, Aretxabaletako institutuan emango da eta Eusko Jaurlaritzak eta Europako Gizarte Fondoak diruz lagundutakoa da.

Erresidentzi, psiko-geriatríko, eguneko zentru eta etxeetan edadekoak zaintzeko profesionalen gero eta behar haundiagoa dagoela ikusita antolatu da ikastaroa. Errekurtso materialen antolaketa, gaixoari eman beharreko laguntza, geriatriako oinarriko ezagutzak, enfermeriako zaintza terapeutikoak eta beste hainbat ezagutza eskainiko dira. Ikastaroa abenduaren 1ean hasiko da eta 2001eko apirilaren 30ean bukatu, astelehenetik ostiralera bitartean izango da 15:00etatik 20:30era. Izena emateko instituturara jo behar da, 943797900, azaroaren 30a baino lehen.



Aurten ere lehiaketa arrakastatsua izango da Loramendik antolatutakoa

Eskola arteko XII. Loramendi literatur lehiaketa antolatu da

Loramendi euskara elkar-teak Aretxabaletako eskola arteko XII. Loramendi literatur lehiaketa antolatu du. Aretxabaletan bizi edo ikasten ari den edozein gaztetxok parte har dezake bertan.

Aurreko urteetan bezala bi maila egongo dira, lehen hezkuntzakoek ipuin eta poesiak aurkez ditzakete eta DBHkoek ipuin, kantu, kontu zahar... bilketa. Lehen hezkuntzan, era berean, beste bi maila egingo dira eta maila bakoitzean bi talde, D ereduak eta B edo murgiltze ereduak. Horientzat, gaia librea izango da eta lanen luzera

gutxienez 2 orrialdekoa.

DBHn ere bi maila egongo dira eta taldeka zein bakarka parte hartu ahal izango da. Lanak audio zintetan aurkeztuko dira eta horrekin batera grabaketari dagokion aurkibide bat din A-4 orri batean. Grabaketak ezingo du 30 minutu baino gehiago izan.

Lanak "Eskola arteko XII. Loramendi literatur lehiaketa" izenburuz Loramendi elkarte lokalera ekarri behar dira abenduaren 15a baino lehen. Sari banaketa, ostera, 2001eko urtarrilaren 18an egingo da Loramendi elkartearen.

EUSKAL Y-AK INGURUMENEA IZANGO DUEN ERAGINAREN KONTRA

Espainiako ingurugiro ministerioak "Euskal Y"aren inguruan iragarri duen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Aitorpena (IEA) dela eta, joan zen astean prentsaurrekoa eskaini zuten hainbat taldek Arrasaten, besteak beste EH, IU, EHNE eta AHTren aurkako asanblada. Euren esanetan, IEA horrekin agintariek ez daukate abiadura handiko trenaren auziari arazoizko konponbiderik emateko asmorik. Era berean, ingurumenarekiko eraso bortitz bati lotsagabeki garrantzia kendu gura zaio la salatu zuten, AHTak bai ekologia, bai gizarte arloan eragingo lituzkeen kalteez ikuspegi faltsua ematen baitu aitorten horrek. Debagoiena suntsituko duten egitasmo horiek geldiarazteko egingo diren ekintzetan parte hartzera ere dei egin zuten bertan batutakoek.



ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Jauregi
Okindegia

Otalaria, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 92 01



HERRIKO "PLATANEROEI" ADARRAK MOZTU DIZKIETE

Azkenengo hilabete honetan herriko hainbat zuhaitzi adarrak mozten dabilta Makai enpresako langileak. Urteroko lana izaten da, udazkena helitzearekin batera hostoak erortzen hasten direnean hasten den lana. Zuhaitz guztiei, ordea, ez dizkiete mozten adarrak "plataneroak" deitutakoei baino ez, Errekabarren kaleko alde bietan eta Herriko plazan dauden platanero haundiei hain zuzen. Moztu ezean, gero eta haundiagoak egingo liritekeela diote Makaiko langileek, eta sarritan, etxebizitzetatik oso gertu egotean traba egiten dutela. Orain biluzik ikusten badira ere zuhaitzok, datorren udarako osterara ere hostoz beteta topatuko ditugu gerizpe goxoa emanaz.



Hainbat bazkiden zalantzak argitu ziren martizenerako batzarrean

AKL elkarteak etorkizunari buruzko batzarra egin zuen

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak Aretxagazetaren etorkizunaren inguruko batzar informatiboa egin zuen bazkideentzat joan zen martizeneran. Ez zen jende ugari hurreratu baina etorritakoen zalantza eta kezak argitzeko behintzat balio izan zuen batzarra.

Edorta Mendieta, Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendiko lehendakaria, eta Josu Sarasua, Loramendi e.e.ko lehendakaria izan ziren hizlari. Goiena proiektuan sartzeak zer suposatzen duen, datorren astean kaleratuko den

Goienkaria zer izango den eta Aretxagazeta aldizkaria etorkizunera begira nola geratuko den azaldu ziren.

AKL elkarteak, Aretxagazetarentzat aukerarik onena egin duela uste badu ere, beti geratuko dira zalantzatxoak eta badaki bazkide guztiek ez dutela zertan ados egon egindako apostuaz. Dena dela, zalantzak dituen edozein bazkidek argibideak gura izanez gero, astelehenetan arratsaldeko 20:00etatik aurrera Aretxagazetako lokalean, AKLko batzordea gertu egongo litzateke edozein galdera erantzuteko.

ARIZMENDI TOPAKETAK 2000REN AURKEZPENA

Datorren azaroaren 30ean, arratsaldeko 18:30ean, Arizmendi Topaketak 2000 aurkeztuko da Arrasateko Mondragon eskola politetnikoan. Gizabidea Fundazioak antolatutako ekitaldi horretan bi ekin-tza izango dira nagusi: batetik, Joseba Azkarragaren eskutik "Lankidetzta. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua" liburua-ren aurkezpena. Bestetik, "Ba al du etorkizunik gizarte teknologikoan Jainkoarengan sinistea?" gaiaren inguruko hitzaldia Jose Antonio Pagolak emanda.

EZKERTIARREN BATASUNAREN INGURUKO EZTABAIDA EGINGO DA

"Eraiki nahi dugun herritarren batasuna" izenburupean, Euskal Herriko ezkertiarren batasunaren inguruko eztabaida egingo da hurrengo abenduaren 2an Aretxabaletan. Hori dela eta, joan zen zapatuan, hilak 18, ezkertiarren batasunaren inguruko bost ponentzia aurkeztu ziren, "Piztu Euskal Herria", "Igitai eta mailua", "Aralar ildo", "Bateginez" eta "Arragoa kolektiboa".

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Isidoro Uribesalgo eskultore atxabaltarra

Behar bada, batek baino gehiagok izango du atxabaltar honen entzutea, baina gehienontzat ezezaguna da Isidoro Uribesalgo. Errotabarrin jaio zen 1873-an. Txiki-txikitandik erakutsi zuen artista sena eta Julian Zaloña Errotabarriko ugazabak, seme-alabarik ez zuen bere osabak, ordaindu zizkion ikasketak. Lehenengo Gasteizko arte eta ofizio eskolan egon zen, ostean, Otxandioko tailer batean eta azkenik, Erromara alde egin zuen. Erroman bertan geratzeko erabakia hartu eta hamar urte pasatu zuen bertan. Lehenengo apaiz trinitarioen babespean eta

gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, Arte Ederretako eskola nazionalerako ikasle gisa aritu zen, artista famatu askorekin batera.

Euskal Herrira bueltatzerakoan Donostian jarri zuen lan lekua eta bere inguruan arkitekto, margolari eta artista ugari batzen zen. Laneko ezbehar txiki baten ondorioz, sortutako zauri bat txartu eta 1928. urtean hil zen.

Gipuzkoa osoan bere lanak
Lan asko utzi zituen Gipuzkoan bertan Isidorok. Aretxabaletako parrokiaren atzeko aldean etzanda da-

goen Kristoa berea da, baita Arrasateko aldare nagusian dagoen San Juan Bataiatzailearen irudia ere. Oreretako parrokiako Jesusen Bihotza, Donostiako San Inazio elizako Amabirjina, Debako parkean dagoen Fermin Calbetonen burua... eta beste horrenbeste eliza eta lekutan dauden irudiak ere Isidorok egindakoak dira.

Erromako San Carlino komentuko eskulturak

Erromako "San Carlino alle Quattro Fontane" komentua, erromatar barrokoaren aberastasunaren ezaugarri dena, entzute haundikoa da.


GURE NEKEAK ARTU ZITUZUN
ETA GURE MINAK ERAMAN.
AINTZA ZURI, JAUNA



Francesco Borromini arkitekto italiar ospetsuak XVII. mendean egin zuen komentua abade trinitarioentzat. Eliza horretako aldare nagusiko alboko bi ateen gainean, Isidoro Uribesalgo eskultore atxabaltarraren bi lan daude, San Juan de Matia eta San Felix de Valois-en irudiak, abade trinitarioen fundatzaileenak hain zuzen. Bi irudiok XX. mende hasierakoak dira.

Abade trinitario horien artean euskaldunik ez zen falta eta hemengo gotzain eta apaiz asko pasatu dira bertatik. Hori dela eta euskal sinbolu ugari daude San Carlino komentuan, gaur egun ere, bertako apaiz nagusia Otxandiokoa da.

Erromara joanez gero badakizue nondik pasatu, San Carlino komentuko arte aberastasunaz gozatzeaz gain, atxabaltar baten irudi dotoreak ikusiko dituzue.



MAITE AGUILERA logopedia bulegoa

- Ahotsaren berreziketa
- Ahoskatze arazoak
- Hitzmoteltasuna
- Mintzamina eta hizkuntza atzerapena
- Afasiak

Tel.: 943 71 50 70 / 658204076
Dorleta, 10 4 ezk ESKORIATZA

BEGI ONDO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Herriko
plazan

ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

IBARRA
ESTANKOA



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

20 ETA 30 KILOTIK GORAKO KALABAZAK UNTZILLAN

Untzillako Muru baserrian, Juan Antonio Aretxaga atxabal-tarra bizi den baserrian, 34 kiloko kalabaza bat eta 24 eta 26 kiloko beste pare bat jaso dituzte. Udaberri aldera erein zituen Jose Isasmendik kalabazok, Lourdes alabaren esanetan aukeran berandutxo, eta Isabel Beitiak zaindu ostean, izugarritzko kalabazak jaso dituzte. Hiru horiek haundienak badira ere, besteak ere ez dira nolana-hikoak. Lur ona ei dute Untzillan, ura baino ez diote eta bota hain haundiak egiteko. Aurten lehenengo aldiz erein dituzte kalabazak eta meloiak Muru baserrian, eta lortutako aleak ikusita datorren urtean ere ereiteko asmoa daukate. Argi dago bertakoak propio ez diren fruitu ederrak ere jaso daitezkeela gure lurretan.



Izotzeko I. futbolin txapelketa arrakasta haundiz burutu da

Izotz tabernak futbolin txapelketa antolatu du aurten lehenengo aldiz. 21 parte hartzaile izan ditu txapelketak, horietatik 5 neskak. Adin eta giro ezberdinetako jendea batu zen gainera, giro ezin hobea sortuz. Le-

henengo saria, Vicente Calzon eta Santiago Carrascok lortu zuten, bigarrena, Kiko Fernandez eta Jon Revuelta eta hirugarrena Iban Cuesta eta Felipe Hernandezek. Laugarrena, ostera, neska izan zen, Ainhoa Calleja.



KULTUR ERROTAK ANTOLATUTAKO EKINTZAK AURRERA DOAZ

Udazken honetarako kultur errotak, Loramendi euskara elkartearen eskutik Aretxabaletan, hainbat ekintza eta ekitaldi antolatu ditu: hitzaldiak, kontzertuak, erakusketak...

Urtea bukatu artean oraindik ekitaldi eta ekintza ugari geratzen dira, gustu ezberdinak asetzeko modukoak gainera, beraz animatu eta etorri.

Astelehen honetan bertan euskal jantzien inguruko erakusketa eta hitzaldia izan dira Loramendiko txokoan. XIX. mendeko jantziak ziren gehientzuenak, bai gizonezkoenak, eta emakumezkoenak, eta lanerako nahiz jai egunetan erabiltzen zirenak. Juan Antonio Urbeltz eta Ane Albisuk aurkeztu zituzten jantziok bertara hurreratutako guztiei.

Gustuko lekuan aldatsik ez

Kurtzebarri eskolako 5. mailakoak San Adriango aterpetxean izan ziren hiru egunetarako. Bertan, tunelean dagoen kobazuloa miatu zuten; gainera, zubi malasiarretatik nola pasatzen den ere ikasi zuten. Bukatzeko, Arabako mendirik altuenera igo ziren, Aratzera (1.447m.) hain zuzen. Abentura, langun artea eta udazkenaz gozatzeko aukera paregabea.



Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

Mobiliario
ARENZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Aretxabaletako plan estrategikoa aurrera doa

Aretxabaletako udalak eskatuta LKS enpresak irailean martxan jarri zuen plan estrategikoaren azterketa aurrera doa. Martizenean azkenengo aurrera pausuen berri eman zuten komunikabideen aurrean.

Herriko diagnostikoa

Herriko plan estrategiko hori burutzeko bi lan talde osatu dira, Kontseilu Orokorra eta Kontseilu Aholkularia, bakoitza herriko esparru ezberdinetako 20 bat lagunek osatua. Bi talde horietan, LKSk aurkeztutako herriko diagnostikoaren txostena aztertu eta eztabaidatu da. Aipatutako txostenean, herriko egoera aztertu ostean, hamabi sail jaso dira: demografia, hezkuntza, aisialdia eta oinarriko infrastrukturak

beste batzuen artean. Sail horiek hobetzeak, herriko aberastasuna gehitzeaz gain biztanleen bizi maila hobetuko du.

Urrian, diagnostiko horren inguruan adostasuna lortu zen Aretxabaletako ahultasun, mehatxu, sendotasun eta aukerak zehaztuaz. Orain, Kontseilu Orokor eta Kontseilu Aholkulariaren lana, beti ere LKSren gidaritzapean, herriaren garapenerako oztopoak eta abantailak kontuan hartuta Aretxabaletako etorkizuneko proiektua zehaztea da. Oso garrantzitsua izango da eman behar den pausu hori, hartutako erabakien arabera hurrengo hamar urteetan herrian aurrera eramango diren ekintza eta proiektuak zehaztuko direlako.



Herriko esparru ezberdinetako lagunek osatutako bi lan taldetan herriko diagnostikoaren txostena aztertu da.

Aretxagazeta



Egin zaitez harpidedun.



Hemendik aurrera Aretxagazeta eta Goienkaria zure etxeko buzoian jaso gura badituzu, ondorengo datuak bete eta bidali 151 postakutxatilara edo eta Aretxagazetako buzoian utzi (Durana, 11), udaletxe zaharreko edifizioan.

* Dagoeneko bazkide bazara ez daukazu bete beharrik


Izen-abizenak:

Helbidea:

Posta kodea:

Herria:

Tel.:



GERIATRIA LAGUNTZAILE IKASTAROA

Egitaraua:

- Unitate/zerbitzu batean baliabide materialak antolatzeke modua.
- Gaixoarekiko komunikazioa eta arreta, geriatriko oinarrizko zainketak.
- Erizaintzako zainketa terapeutikoak, zaharrari eman beharreko arreta berezitua.
- Ingurumenarekiko sentsibilizazioa, prestakuntza.
- Lanerako orientazioa.

Norentzat: Langabezia dauden emakumeentzat.

Hasiera data: 2000ko abenduaren 1a

Amaiera data: 2001eko apirila.

Iraupena: 420 ordu.

Ordutegia:
Arratsaldeko 15:00etatik 20:30era.

Eskaerak aurkezteko epea:
Azaroaren 30a

Argibideak: Aretxabaletako Institutua
943797900



Aretxabaletako
Udala



Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantza Departamendua



Europako Elkartea
Europako Gizarte Fondoa

Orain laupabost urte hasi zen altzariak berritzen, bi lagunek teknika erakutsi ostean. Geroztik bere kasa dabil ikasten eta lanean. Ordu asko eta diru gutxi ematen duen lana bada ere, gustura egiteak poztasuna ematen ei du.



Lourdes Urkia Altzariak berritzen

■ Zer berritzen duzu?

■ Egurrezko altzari zaharrak gehienbat, antzinako altzariak: mahaiak, aulkiak, ohe buruak... Baita portzelanazko ontziak, estainuzko palanganak...ere. Badago, ordea, altzari edo apaingarriren bat egoera onean egon arren itxura aldatu gura dion jendea, eta hori ere egiten dut.

■ Ikasketaren bat burutu duzu?

■ Ez, dakidana bi lagunen bitartez ikasi dut. Batek etxe zaharrak berritzen ditu, eta antzinako altzariak nola berritzen zituen ikusita neuri ere zirratarxoa sartu zitzaidan barruan. Besteak, portugaldarra bera, jauregieta-ko apaingarriak zaharberritzen ditu eta apaingarri txikiak nola berritu eta konpondu erakutsi zidan.

■ Lanbidea edo afizioa?

■ Lanbidea ez behintzat, lan ordu asko eskatu eta diru gutxi ematen duen ofizioa delako. Zenbat diru eska daiteke altzari bat berritze-agatik? Pasatutako orduak kontatuz gero, izugarri ordaindu beharko lukete bezeroek. Afizioa izan arren, ordea, erantzunkizuna ez da nolanhikoa, argi ibili ezean balio haundiko altzaria hondatu daiteke eta.

■ Zein prozesu jarraitzen da?

■ Lehenengo altzariaren beraren estiloa aztertu behar da piezaren bat falta bazaio berregin egin behar delako: barrokoa bada apaingarri asko izango ditu, baina normalean euskal estiloko altzariak ekartzen dizkirate, apaingarri gutxiago dituztenak. Ondoren egurra garbitzen da, si-

tsak jota badago ganbara berezietan sartu eta gero egurra osatzeko tratamendua ematen zaio. Azkenik, egurra leuntzen eta lantzen hasten naiz, batzuetan, gainera, margoa edo barniza kentzerakoan azpian egur zoragarriak agertzen dira. Bukatzeko bezeroak eskatzen duena egiten dut, zerbait margotu gainean, barniza eman edo argizaria eman.

■ Bakarrik lan egiten duzu?

■ Bai, bueno senarrak ere laguntzen dit egurra lantzeko orduan eta piezaren bat berregin behar denean. Lan egiteko makinak ere badituz, baina egurrari eskuz gustatzen zait bukaera ematea.

■ Bezeroak gustura gertatzen dira?

■ Momentuz bai, hori bai

lanean hasi aurretik galdera ugari egiten dizkiet altzaria non jarri behar duen, berritu ostean kolorea aldatuz gero haserretuko den... Hobe da hasieran lotzea dena bukaeran arazorik egon ez dadin. Egingdako lana baloratzen duen jendea badago, baina askok ez dakite zelako lana dagoen altzari berritu baten ostean.

■ Jendeak badu antzinako altzariak gordetzeko ohiturarik?

■ Lehen ez, lehen dena bota egiten zen, baina orain pare bat urtetik hona jendea antzinako gauzak gordetzen hasi da. Izan ere antzinakoaren balioa ez da bakarrik denbora pasatu delako, batez ere norberaren historiarekin lotura duelako da.

Ura Cult

Gure bailaran, industrialdeek sortzen duten zarata instrumentalaz aparte eta inguruan ditugun mendiez gain - oraindik gelditzen direnak behintzat - gauza gutxi heltzen da gure begi eta belarrietara; gutxi eta eskasa, gainera.

Jakinmin eta ikusmina pil-pilean daramagu odolean eta hau asetzeko bidaiatzea dugu alternatiba bat. Zoritxarrez, gehiengoak ez dugu nahi beste bidaiatzeko aukerarik izaten eta ezintasun horrek gure ikusteko eta ikasteko egarria oraindik gehiago areagotzen du.

Gu iturrira ezin garenez joan, ura hona ekartzea izango litzateke irtenbideetako bat; euren artean mugimendu kulturala izanik beharbada errekurrituena. Halere, gure bailaran dagoen mugimendu bakarra kotxeena dela dirudi. Hau dela eta, inguruko herrietara joan beharra daukagu esperientzia berrien bila. Zuetariko batzuek herrietan bizi garena eta ez hirietan pentsatuko duzue eta, hau horrela izanik, normaltzat joko duzue orain daukagun "lasaitasuna". Nire ustez, aldiz, gure bailarako herriak aspaldi herri lasaiak izatetik hirien pareko bizimaila eta bizimodua izatera pasa dira -aparkatzeko dagoen toki falta adibide gisa.

Tabernak bai herri eta bai hirietan "internazionalak" dira. Toki batzuetan medio horren bitartez antzerki eta musika taldeak ematen dira eza-gutzerara; bezeroak ez du sarrera ordaindu beharrik, baina tabernari eta artista ez da saririk gabe gelditzen; denak pozik beraz. Gure tabernetan, aldiz, gauza gutxi egoten da. Horretaz gain, bertako musika ere ez da oso motibagarria izaten.

Ea bada, gure jainko-kooperatibetan ez ezik, beste alor batzuetan ere eredu bihurtzen garen, horrela bisitan datozen japoniarrek lantegiak ikusteaz aparte, beste zerbait ere egiteko aukera eduki dezaten.

Monika MADINABEITIA



“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

**JOSU
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08

Maritxu
Mertzzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

Badator

Eskualde osorako astekaria datorren astean argitaratuko da

Goienkaria!

Datorren ostiralean, abenduak 1, komunikabide berria jaioko da: Goienkaria, Debagoieneko lehenengo astekaria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartean biltzen diren bailarako euskara elkarte guztien ekimenari esker, eskualde osorako egindako astekaria izango da.

Goienak urte honetan bailara osorako bi komunikabide abiatzea zuen helburu. Batetik, Goiena Telebista, gaur egun, oraindik, Leintz aldean bakarrik ikusten dena, eta laster Antzuolara ere zabalduko dena. Bestetik, Goienkaria: Aramaio, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetako etxetan doan banatuko den egunkari itxurako astekaria. “Gure asmoa Goienkaria lehenago abiatzea zen, baina idatzizko komunikabideen gaineko hausnarketa sakona egin dugu, eta horrek epeak atzeratu egin ditu. Edozelan ere, urte amaieran jaioko den arren, etorkizunetan prentsa alorrean egin nahi dugunaren oinarriak finkatu ditugula esango nuke. Uste dut merezi izan duela gauzak ondo egiteko astia hartzea”, esan digu Goiena elkartearen Zuzendari Nagusi Mikel Irizarrek.

HERRIETAKO ETA ESQUALDEKO INFORMAZIOA

Bailarako tokian tokiko aldizkarietarako daramatzate informazio lokala lantzen. Arrasate Press, Aretxagazeta, Berrigara, Ze Barri? (Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga), Goibekokale (Elgeta), Kontuola (Antzuola) eta Kontzejupetik (Oñati) informazioaren erreferentzia di-

ra, baiokitza bere esparruan. Baina, eskualde osoan banatzen den euskarazko idatzizko komunikabiderik ez dago. Hutsune hori betetzera dator Goienkaria. Horregatik, herri aldizkarien osagarri izango da: hauek herriko berriak landuko dituzte eta Goienkariak, eskualdekoak. “Herriek egiten dute eskualdea, baina, era berean, eskualdea bera ere bada albiste sortzaile. Bestalde, badira herri guztientzako komunak diren erakunde, elkarte edo zerbitzuak, eta baita denentzako, aretxabaletarrentzako zein oñatiarrentzako, esaterako, interesekoak izan daitezkeen albisteak. Horiei eutsi

Egunkari itxurakoa izango da, errotatiban eta prentsa-paperean inprimitutakoa

Ostiralero, 20.000 ale inguru banatuko dira Debagoieneko herri denetan

nahi diegu”, dio Eneko Azkarate Goienkariako zuzendariak. Eneko bergararra da eta hainbat urtetan Berrigarara zuzendaria izan da.

ZELAKOA IZANGO DA?

Goienkaria A3 formatukoa izango da, hau da, bailarako herri aldizkariak baino handiagoa, egunkarietarako itxurakoa. Prentsa-paperean eta errotatiban inprimituko da. “Inprimatze kostuak askoz ere merkeagoak dira eta horrek egiten du bideragarri proiektua”, diosku Mikel Irizarrek.

Goienkariak 24 orrialde izango ditu eta bi zatitan banatuko da: lehenengoa, asteko gai nagusiak, albisteak, elkarriketak eta kirolak jasoko dira; horiekin batera, iritziak emateko eta eske-lentzako tartea ere izango da. Bigarren zatian, Goienka2a izenekoa, kultura, aisialdia, agenda, zerbitzuak, denborapasa eta Goiena Telebistari buruzko informazioa jasoko da, besteak beste. Partikularren iragarki laburrentzat ere izango da orrialde bat. “Agendari eta zerbitzuen informazioari garrantzi handia emango diegu. Bailarakoaz gain, Gasteizeko eta auzo herrietako kultura agenda osatua jaso nahi dugu. Gainontzean, ohiko egunkari baten sailak izango ditu”, dio Eneko Azkaratek.

Diseinuari dagokionez, “astekari era-

LEINTZ-GATZAGAN

Goienkaria astero + Ze barri? hilero

ESKORIATZAN

Goienkaria astero + Ze barri? hilero

ARETXABALETAN

Goienkaria astero + Aretxagazeta hamabostero

ARRASATEN

Goienkaria + Arrasate Press astero

ARAMAION

Goienkaria astero

BERGARAN

Goienkaria + Berrigara astero

ELGETAN

Goienkaria astero + Goibekokale? hilero

ANTZUOLAN

Goienkaria + Berrigara astero +
Kontuola hamabostero

OÑATIN

Goienkaria astero + Kontzejupetik hilero

Herrikoa eta bailarakoa batera

Aretxagazetak zortzi urte bete ditu. Makina bat lan eta buruhauste izan dira tartean honaino iristeko. Hala ere, herritarron laguntzaz aldizkaria kalera-tzen jarraitu dugu. Baina hemen gelditu behar ete du denak? Ez, horixe! Aurrera begira proiektuak ugari dira, garrantzitsuena bailarako Goiena proiektua.

Goiena telebista abian jarri zen iazko maiatzean, baina orain erronka berria du-gu aurrez aurre: Goienkaria, bailarako astekaria. Modu honetan herri mailako al-bisteez gain, bailarakoak ere jasoko dituzue etxean. Beti ere, Aretxagazetak bere izaera mantenduko du, eta hurbileko informazioa jorratzen jarraituko du. Hala ere, gaur egungo atal batzuk galdu egingo ditu, beste berri batzuekin ordezkatuz.

Bukatzeko, hurrengo Aretxagazeta abenduaren 1ean kaleratuko da, Goienkaria-rekin batera. Biek batera informazio osotuagoa eskainiko dute, hemendik aurrera herriko eta bailarako informazioa jasoko duzue etxean.

ARETXAGAZETA

kargarria eta irakurtzera animatuko duena egin nahi dugu”, diosku Goio Arana diseinu arduradunak. Goio Arrasate Pressko diseinatzaile eta maketa-tzailea izandakoa da urteetan. Orrialde batzuk, azala eta kontrazala, esaterako, koloretan inprimatuko dira. Gainerako-ak, tinta bakarrean.

DEBAGOIENEN KAZETARIEK EGINA

Eskualdeko herri aldizkarietan lanean diharduten edo ibili diren kazetari, ko-mertzial eta maketatzaileek egingo du-te Goienkaria. Hauek Debagoieneko he-rrri guztietako kolaboratzaileen lagun-tza izango dute: iritzi artikulua idazte-ko, marrazkiak edo ilustrazioak egiteko



Gure eskualdean sei herri aldizkari banatan dira gaur egun.



edota beste hainbat sailtan idazteko. Eneko Azkaratek dioenez, "jende asko egingo du Goienkaria, herri denetako jendeak, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu, aldizkaria interesgarriagoa egiteko. Funtzionamendua zaildu egingo du, koordinazio lan handia eskatzen duelako, baina merezi duela uste dut".

Goienkariaren egoitza nagusia Bergaran egongo da, Berrigarako erredakzioaren ondoan, baina Arrasate Press eta Aretxagazetarekin lotuta egongo da, sare informatikoaren bitartez. Etorkizunean, Oñatiko ordezkariak ere lotzea da asmoa. Intranetaren bitartez, artxi-boak, informazioa, argazkiak etab. konpartitzeko aukera izango dute ordezkariak.

ASTERO, ZUEN ESKURA

Goienkaria ostiralero banatuko da, donan, Debagoieneko etxeetan. Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten, bertako aste-kariekin batera. Beste herrietan, bakoitza aldizkaririk ez dagoenean eta aldizkariarekin batera hauek argitaratzen direnean. 20.000 ale inguru banatuko dira. Beraz, ale kopururik handieneko euskarazko aste-karia izango da. Herri denetan antolatuko dira banaketa taldeak, herritarrek ostiralero euren etxeko postontzietan jaso ahal izateko.

IRAGARLEENTZAKO EUSKARRI PAREGABEA

Goienkaria Debagoieneko ia etxe guztietan banatuko dela esan dugu. Beraz, bailarako zein bailaraz kanpoko mer-



Martxoko hauteskunderen bihamonean banatu zen Goienkaria bereziak harrera ona izan zuen.

kataritza-etxe, dendari, enpresa eta abarrentzako euskarri paregabea izango da. Herri aldizkariaren finantzaketa biderik nagusietako bat publizitatea da eta Goienkariarekin bide horri eutsi nahi dio Goienak. "Euskarri berri bat eskainiko diegu merkatari, enpresa edota erakundeei; hau da, Debagoieneko nagusi izango den komunikabide batean publizitatea egiteko aukera eskainiko zaie. Nor bere herriko aldizkarian egitea nahiago dutenak izango dira, baina bere mezu edo eskaintza eskualde osoko herrietara zabaltzeko interesa dutenak ere bai. Bakoitzak aukeratuko du", diosku merkataritzaren arloko ardura-duna den Gotzon Arzelus bergararrak.

Egunkarira bidean

Lau dira Goienaren jarduera-arlo nagusiak: telebista, prentsa, irratia eta zerbitzu telematikoak. Landuen eta lagaratuaren daudenak, telebista eta prentsa dira, nahiz eta egitasmoak bere osotasunean gauzatu barik egon oraindik. Lan-esparrua, ostera, Debagoiena da.

Prentsa arloari dagokionez, hausnarketa prozesu sakon batean murgilduta izan dira aurten herrietako komunikabide eta euskara elkarteak. Eskualde osorako komunikabide bat abiarazi nahi da, baina herrietakoei eutsiz. Hori dela eta, epe batzuk zehaztu dira bailarako aldizkari denak astekari bihurtzeko. Abenduaren 1ean Goienkaria argitaratuko da eta eskualdeko gainerako herri aldizkariarekin batera banatuko da, hauek kaleratzen direnean. Datorren urteko maiatzerako, berriaz, gaur egungo herri aldizkariak birmoldatu eta A3 formatura aldatuko dira. Lau edizio lokal sortuko dira: Bergarakoa,

Oñatikoa, Aretxabaletakoa eta Arrasatekoa. Bergarakoan, bertako, Antzuolako eta Elgetako berriak jasoko dira. Oñatikoan bertakoak. Aretxabaletakoan, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aretxabaleta bertakoak. Azkenik, Arrasatekoan, Aramaiokoak eta Arrasatekoak. Mantxetei edo aldizkariaren izenei eutsiko zaie eta lau edizioak astero argitaratuko dira, Goienkariarekin batera. Beraz, informazioa lokal eta eskualdekoa txertatuko dira produktu bakarrean.

Etorkizunean, egunerokoa egitea da Goienaren helburua, baina horretarako bideragarritasun plana egin beharko da: finantzaketa, banaketa, langileak etab. ziurtatu beharko dira. Finantzaketa modu berriak eta eguneroko banaketa zelan egin aztertuko, bi pertsona hartu dira. Datorren urteko udazkenerako erabaki nahi da egunkarirako urratsa eman edo ez.



Frontenis

Frontenis txapelketa final erdietan. Datorren asteburua frontenis txapelketako final erdiak jokatuko dira arrasatear eta bergararren artean. Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia bikote arrasatearrek Igor Cusi eta Joseba cusi bergararren aurka jokatuko du. Patxi Vallejo eta Xabier Albizua bergararrek, bestalde, Jose Izquierdo eta Candido Urtado arrasatearrek izango dituzte aurrez aurre. Partiduak datorren zapatu arratsaldean jokatuko dira.



Futbola

Bigarren erregionalak garaipen bikaina etxean. Joan den asteburuan 4-1 nagusitu ziren Udako Alberto Perezen mutilak Aurrera taldearen aurka. Etxeko taldea ondo aritu zen, eta Ingidua, Unai eta Donosoren bi golei esker garaipen polita eskuratu zuen bigarren erregionalak. Hurrengo partidua Sestuaren aurka kanpoan izango du udako taldeak. Azken garaipen horrekin indarrez josita zelairatuko dira jokalaria.



Pilota

Lehen mailako seniorrak final erdietara. Lasaga baster Alzola bikoteak eta Errasti anaiek Gipuzkoako elkarte arteko ligaska bukatu berri dute. Bi bikoteak lehen postuan sailkatu dira, gainera. Errasti anaiek final aurrekoa jokatuko dute datorren asteburuan Intxaurrendoren aurka. Lasagabaster eta Alzola, barrez, Ikasberriko pilotarien aurka arituko dira. Bi partiduak Iturrigorrin izango dira datorren zapatuan 19:00etatik aurrera.



Futbola

Eskolarteko lehen derbia. Eskolarteko kirolaren barruan aurrekoan derbia jokatuko zuten Kurtzebarri eskola eta Almen ikastolako futbol taldeko neskek. Emaitza Kurtzebarriren aldekoa izan zen, 2-0. Mutiletan, bestalde, Almenekoak gailendu ziren Kurtzebarrikoen aurrean. Almeneko mutilek 3-2 irabazi zuten. Gogoratu eskolaz kanpoko kirol jarduerak asteburuo izaten direla herriko ikasteetan.

Lehenengo pilotakadak Larrinoko frontoian eman zituen Aitor Alzolak. Orduan zazpi bat urte izango zituen. Gaur egun, hemeretzi urte ditu, eta pilotari afizionatua da. Josu Lasagabaster eta biek elkarte arteko pilota torneoak jokatzen dihardute. Politto ari dira, gainera.

■ Elkarte arteko torneo hori, nola doa?

■ Momentuz oso ondo jokatzen ari gara. Lehenengo fasea gainditu genuen. Lau bikotetatik lehen gelditu ginen. Orain bigarren fasea jokatzen dihardugu. Orain artean, jokatu ditugun bi partiduak irabazi ditugu, eta ondorengoak ikusi egin behar.

■ Beraz, torneo horretako azkenetara iristeko esperantzarik bai?

■ Bai, esperantzak baditugu. Momentuz aurrera jarraituko dugu, eta finalean egoten saiatuko gara.

■ Atzean jokatzen duzu, zein ezaugarri behar ditu atzelari batek?

■ Indarra eta konstantzia batez ere.

■ Zuk zeuk badituzu?

■ Nahiko konstantea naizela uste dut. Bestalde, pilotan eskuma ezker baina hobea daukat. Ezker hobetzen saiatu behar dut.

■ Pilotaria ikasiz eta entrenatuz egiten da, hala, berezkoa ere izan behar du?

■ Nik uste dut berezkoa ere izan behar dela, entrenamenduekin beti hobetu daitekeen arren. Berezkoa izan baina pilotaria ez bada saiatzen, ez da urrun iritsiko.

■ Herriko pilota instalakuntzekin konforme zaudete?

■ Bai. Ez naiz kezkatzen. Iturrigorri frontoia itxi zutenetik, hobeto moldatzen gara. Hala ere, neguan hotz egiten du.

■ Azken urteotan pilotak

Aitor Alzola Pilotari afizionatua

■ eman duen aldaketa onerako ala txarrerako izan da?

■ Gaur egun ondo dabilen afizionatu bat segituan igotzen dute profesionalerara. Horrek zera dakar, afizionatu onenak gora igotzea, eta horrek maila jaitsi egiten du. Profesionaletan ere beste horrenbeste gertatzen da. Ondorioz, telebistan, edozein partidu ikustera ohitu gara, maila gutxiko partiduak askotan.

■ Noiz arte pilotari?

■ Oraindik urte batzuetan jarraitzeko asmoa dut. Gogoia eta ilusioa dauden bitartean aurrera.

■ Profesionalerara saltoa zelan ikusten duzu?


■ Ez dut planteatu ere egin. Afizionatuetan ahalik eta denboraldi onena egitea da nire helburua. Hala ere, noizbait deituz gero gusturara joango nintzateke.

■ Atzelari eta aurrelari gustuko bat?

■ Atzelaria Beloki esango nuke. Indar haundiko pilotaria da. Aurrelaria, barrez, Olaizola Iia. Pilotari gaztea izan arren, oso ondo jokatzen du. Pilotari konpletuena da nire iritziz.

■ Lau eta erdiko txapelketa jarraitzen duzu?

■ Bai, oraindik bukatzeko asko gelditzen den arren, Eugik irabaziko duela uste



BEHOBIA-DONOSTIAKO ATXABALTARREN SAILKAPENA

Aurtengo maratoi erdian iaz baino atxabaltar gehiago egon da. Guztira 40 atxabaltar heldu zen helmugara, Behobia Donostia lasterketako 21 kilometroak egin ondoren. Joseba Larrinaga bere kategorian lehena izateaz gain, herriko azkarrena ere izan zen. Euskal makila eta txapela oparitu zio-

ten. Aurrekoetan moduan, aurten ere, herritik mutil gehiago joan da neskak baino, guztira hiru emakume animatu ziren, baina bikain aritu ziren hirurak.

Ondoren atxabaltarren denbora eta helmuga postuak dituzue.

128	Joseba Larrinaga	1:12:00	4995	Floren Elortondo	1:44:30
797	Joseba Berezibar	1:22:50	5179	Jose Mari Guridi	1:45:18
	Inaxio Garro	1:25:43	5186	Miguel Uribebarria	1:45:20
1262	Kepa Antxia	1:26:08	5879	Iñaki Arnaiz	1:48:46
1654	Alberto Perez	1:28:20	5888	Josu Lanzos	1:48:48
2159	Jesus Lonbide	1:30:40	5996	Koldo Zubillaga	1:49:21
2395	Fernando Uribesalgo	1:32:03	6117	Asier Elkorobarrutia	1:50:06
2500	Jose Javier Irure	1:32:39	6429	Raul Sanz	1:51:40
2758	Manex Larrinaga	1:34:01	6444	Anabel Aranzadi	1:51:46
2792	Julen Larrinaga	1:34:11	6753	Iurgi Etxebarria	1:53:21
2953	Angel Maria Etxabe	1:35:05	6757	Ander Hernandez	1:53:22
2968	Javi Garcia	1:35:10	6758	Ricardo Garcia	1:53:23
3468	Mikel Uribebarria	1:37:44	6831	Amaia Garcia	1:53:53
3653	Xabier Jausoro	1:38:35	7215	Jose Maria Etxebarrieta	1:56:16
3865	Aitor Bengoa	1:39:37	7218	Javier Etxebarrieta	1:56:17
4337	Aritz Iturbe	1:41:38	7268	Jon Ander Loidi	1:56:37
4354	Ramon Eraña	1:41:42	7271	Ainhoa Larrañaga	1:56:38
4678	Javier Mar	1:43:08	7637	Zigor Kintanilla	1:59:39
4709	John Nelson	1:43:14	7980	Oier Garziaetxabe	2:02:43
4725	Iñaki Etxebarria	1:43:18	7984	Iker Urkia	2:02:45
4811	Jose Revuelta	1:43:41			


Elbarrituendako igogailua igerilekuan

Aurrerantzean elbarrituek arazo gutxiago izango dute igerilekura joaten direnean. Izan ere, orain hilabete inguru ez gaitasun fisikoa duten pertsonentzako igerilekura igo eta jaisteko igogailua jarri zen.

Eguneroko bizitzan elbarriek oztopo arkitektonikoei aurre egin behar izaten

diete, eta hauek gutxitzea du helburu kiroletxean jarri barri den igogailu horrek.

Asier Mugika kirol teknikariak adierazi digunez, oraindik ez da asko erabili igerilekura jaisteko makina, baina hemendik aurrera igeri egin gura duen elbarrituak oztopo gutxiago izango dituela hori seguru.



Mitartegari
Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel: 943 79 17 51



**San Migel
erretegia**

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71



DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-I
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Txominek orain urtebete inguru hartu zuen Haizea tabernaren ardura. Hala ere, betidanik tabernari lanetan aritu da, bere anai-arreba gehienen antzera. Tabernaz kanpo, ehizak, arrantzak eta juergak betetzen dute bere denbora librean.

Txomin Manteca

"Tabernatik kanpo, ehizatzea eta juergak botatzea atsegin dut"



- Zer moduz tabernako arduradun lanetan?
- Ondo, baina ez zait agintzea gehiegi gustatzen.
- Haizean lan egin aurretik zein beste tabernatan aritu zara?
- Gurean, Urbaltzen eta Zaraian.
- Familia guztia tabernari.
- Bai, hala da. Herriko hiru tabernetan ari gara lanean hiru anaiok, eta Gasteizen arreba batek beste taberna bat dauka.
- Etxean baduzue tabernari sustrairik?
- Ez, gurasoak ez dira tabernariak izan, baina anai-arreba guztiok ibili gara barraren ostean.
- Barra barruan ala kanpoan gusturago?
- Bietan gustura.
- Zein ezaugarri behar dira barra barruan egoteko?
- Askok aguantatu behar da.
- Zein musika entzuteko aukera daukagu Haizean?
- Zerbitzariaren arabera musika bat edo beste bat entzuten da. Orduaren, egunaren eta bezeroaren arabera ere badago hori.
- Zuri zein musika gustatzen zaizu?
- Rumba eta reagge-a.
- Koktelik egin duzu sekula?
- Saltzeko ez, baina geuretzako bai.
- Zer edaten dugu atxabaltarrok?
- Zuritza eta kalimotzoa.
- Ardoaren garestitza igartzen da txikiteoan?
- Bai, asko.
- Zein edari dago modan?
- Malibua pinarekin.
- Zu zeu juergazalea zara?
- Bai, oso juergazalea naiz.
- Tabernaz aparte ehizan aritzen zara. Nola joan da aurtengoa?
- Niretako txarto. Ez dut harrapakin haundirik harrapatu, birigarro gutxi batzuk. Ez dut denborarik izan.
- Nondik datorkizu ehizatzeako afizioa?
- Aitak ehizan egiten zuen, eta anaiak ere denak joaten dira.
- Zer ehizatzen duzu?
- Hegaztiak, birigarroak, galeperra...
- Ehizatutakoa gero tripara?
- Bai, etxean amak oso ondo gertatzen ditu, eta bestela lagunekin afariak egiten ditut.
- Zenbat ehiza txakur dituzu?
- Bat eta nahikoa, Brandi.



LASAGABASTER


Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Nissan Primera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila: aldibi.elgoibar@nortekar.com



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan

Abenduaren 1etik aurrera,



zure eskura.



DEBAGOIENENKO ASTEKARI BERRIA

PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Protagonista berriak

Behin eta berriz errepikatu izan dugu, Aretxagazetako protagonistak herriarrak eurak direla. Besteak beste txoko honetan be herritik jasotako pertsonaiak aipatzen ditugu, hau edo beste egin dutelako, lehiaketa bat irabazi dutelako, e.a. Aldizkariko gainontzeko ataletan joaten ez diren txutxumutxuen txokoa, hain zuzen. Hori da atal honen helburua.

Bueno roilo gehiegi gauza onerako. Goazen behingoz harira! Aurrekoan be aipatu genuen **Joseba Larrinaga**, baina oraingoan be ezin aipatu barik utzi. Sidney-tik itzuli ondoren, hara eta hona dabil. Aurrekoan Ajuria Enean izan zen. Ibarretxe lehendakariak arrera berroa egin zien paraolimpiko guztiei. Hori bai zorrea, ni neu be gustura joango nintzateke. Nik telebistan ikustearekin konformatu behar izan nuen.

Telebistan beste atxabaltar batzuk be agertu dira azkenaldian. Aurrekoan Eskoriatzako irakasle eskolako ikasleak **Sorginen Laratza** programan ikusi nituen. Tartean herriko aurpegi ezagun asko

zeuden. Barre eta barre egiten zuten Claudio Landa eta programako gainontzeko aktoreekin.

Bertatik bertaran, bestalde, beste atxabaltar baten ahotsa entzuteko aukera izan genuen, **Jabier Oñederrarena**. Hau be perretxiko zaletua ei da, eta perretxikoez gehiago jakin gura zuelako deitu zuen programara.

Programa kontuekin jarraituz, oraindik **jai batzordeak** negu kulturaleko ekitaldiak ez ditu kale-ratu, baina aurrekoan afaritarako bildu ziren guztiak. Ondo egin zuten, lan bakarrik ez da egin behar eta. Noizean behin parrandatxo bat be...

Azkenaldian parranda egiteko gogoz dabil jendea. Aurrekoan 73koak izan ziren, 70ekoak gero... Itxura danez, udazkena eta udaberria izaten dira **kintaden** sasoiak. Abernire kintoek be behingoz antolatzen dugun. Nire akorduan azkena orain lau bat urte egin genuen. Beharbada ni neu hasi beharko naiz antolaketa lanetan. Ordua eta lekua ipini eta kitto.

Adi nire kinttoak!

M. J. Arzak



Kamila Zebra

Testua, Marisa Nuñez
Irudiak, Oscar Villan
Kalandraka, 2000
Amets egiteko liburuak bilduma

Kamila Zebra ez zituen atsegin bere tirantezko galtzak. Egun haizetsu batean galtzak kendu eta bere soineko lerroak galdu zituen. Negarrez hasi zen eta orduan sugea ikusi zuen larrua aldatzen; honek kontsolatzeko eraztun bat eman zion, gero marraskiloak, ortzadarrak, armiarmak, kilkerak eta antzarrak ere opari bana egin zioten. Etxera heltzean amak galtzak ahazteko garaia bazela esan zion eta zinta luze bat oparitu zion. Orduan kendu zitzaizkion Kamilari pena guztiak, hainbeste oparirekin oso dotore baitzegoen.

Sei urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua duzue honakoa, behar bada haur txikiagoei kontatzeko ere baliko duena. Testua eta ilustrazioak ederki lotzen dira eta istorioa ulertzen asko laguntzen dute.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Ei Mikel! Itxi ikusi marrazkixak.
- Zer gura dozu, itxia edo ikustia? (txarto)
- Ei Mikel! Itxikoztazu marrazkixak ikusten?
- Zer gura dozu, itxia edo ikustia? (ondo)



Denetik

Iraila inguruan eguzkita-ko emakumezko betaurreko batzuk aurkitu ziren kuartelean. Aretxagazetatik pasatu.

Betaurreko graduatu batzuk aurkitu ziren Haizea taberna ondoan. Udaletxera zuzendu.

Opel Corsa SS-BB salgai. 15.000 km. Berri berria. 943 79 27 30.

Atiko bat erosiko nuke hemen inguruan. Tel.: 670053273.

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. Merke. Tel.: 943 79 78 36.

Voswagen Polo diesel 1.9 salgai. SS-AX matrikuladuna. Tel.: 609541613.

Ford Sierra 2000 kotxea salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

Kawasaky Volcan 800 motorra salgai. 900.000 pta. Tel.: 943 77 08 69.

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626 379 326.

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Trial motorra salgai. 250 m³. 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

Roller karabana salgai. Aurreko estalkiarekin. Tel.: 943 79 46 84.

Ford Courier furgoneta salgai. 1800 diesel, combi. Tel.: 943 71 46 79.

Giltza batzuk galdu dira. Tel.: 943 79 37 98.

Gitarra bat salgai. Tel.: 943 79 37 98.

Etxebizitza

Pisua salgai Aretxabaletan. Andra Mari auzoan. 943 77 13 02.

Errekabarren kalean bi lokal alokagai, 34 m²takoa bata, eta 36koa bestea. Tel.: 943 79 20 48 /943 77 14 11.

Pisua salgai Arronizen (Nafarroa). Lizarratik 15 km.ra. 90 m² + 40 m² baxua. Egoera onean dago eta prezio egokia. Tel.: 941 43 10 19.

Etxe bat alokatu nahi dut Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 81.

Etxebizitza alokagai Aretxabaletan. Loramendi aldean. Tel.: 943 79 56 19.

Aretxabaleta zentruan 94 m² etxebizitza salgai. Eguzki begia eta egoera onean, hiru logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Kalefazioa eta ganbara. Tel.: 943 79 77 30.

Etxeko altzariak salgai, (umeen gela, salako altzariak, sofa...). Bi urte dituzte. Oso merke, gutxia 200.000 ptan. Tel.: 943 79 38 16. (Idoia).

Etxea salgai Aretxabaletan. Tel.: 649930732.

Pertsona bakarrarentzat apartamentu edo estudio bat alokatzea nahi da Deba Goienan. Interesatuak deitu 943 71 53 14 telefono zenbakira (utzi mezua).

**ERREKABARREN
MERKATAL ZENTRUA**

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

Lana

Geriatría eta klinika laguntzailea gaixoak zaintzeko gertu. Etxean, hospitalean edo gaue-tan.

Tel.: 609770133.

Bilboko elkarte euskaltzale batean bulego eta diseinu lanak egiteko langilea behar da.

Interesatuta bazaude bidali curriculum-a: ENA elkarte/Erripa, 6 behe/48001 BILBO.
Tel.: 946 612 213.

Neska eta mutila lan mota desberdinak egiteko gertu daude.

Tel.: 600600531.

Atzerritar mutil batek lana bilatzen du.

Tel.: 686662271.

Bigarren batxilergoko ikasle batek frantseseko klaseak hartuko lituzke.

Tel.: 943 79 63 61.

Ileapaindegi baterako ileapaintzailea behar da.
Tel.: 943 79 80 90.


Lan deialdi publikoak

Administrazio orokorreko teknikaria. Eibarko Udala. Oinarriak: GAOn 00/07/12. Epea: EAOean argitaratu eta 20 eguneko epean.

Euskara teknikaria. Basauriko Udala. Oinarriak: EAOn 00/11/15. Epea: abenduaren 5a.

Atzerri arazoetako ministerioko itzultzailea eta interpretatzailea. Oinarriak: EAOn 00/11/09. Epea: azaroaren 29a.

Gizarte laguntzailea. Azpeitiako Udala. Oinarriak: GAOn 00/11/10. Epea: EAOean argitaratu eta 20 eguneko epean.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

BI AROTZ. Deba Garaia.
Erref.: 41139/1

PSIKOLOGIA IRAKASLEA. Deba Garaia.
Erref.: 41552/1

PRODUKTU FINANTZIEROEN KOMERTZIAL BI. Deba Garaia.
Erref.: 39462/1

MANTENTZE BURU BAT. Bilbo.
Erref.: 41270/3

CNEKO FRESATZAILEA. Donostia.
Erref.: 39362/2

INGENIARI TEKNIKO/MERKATARI TEKNIKO. Tolosa.
Erref.: 41011/3

2 MEZULARI/TRANSPORTISTA. Durangaldea.
Erref.: 40879/2

BOST ELEKTRIZISTA. Bilbo.
Erref.: 41468/4

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Goieneko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

Martini

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK

**BASTER-ALDE
JATETXEA**

**SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN**

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

**AZKARATE
AROTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

**ELIKADURA
BEREZIA****T
X
I
L
A
R
R
A**

Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETA

AZAROA

24 EGUAKOTXA

■ **KONTZERTUA**

Xabier Amuriza eta Mikel Ducauk kontzertua eskainiko dute 22:30ean udale-txe zaharreko aretoan.

30 EGUENA

■ **HITZALDIA**

Alex Azkaratek hanken zainketari buruz berba egingo du arratsaldeko 19:00etan udaletxe zaharreko aretoan.

ABENDUA

2 ZAPATUA

■ **BATASUNAREN BILERA**

Euskal Herriko ezkertiarren batasunak eztabaida bilera antolatu du abenduaren 2rako. Goizeko 11etan udaletxe zaharrean izango da.

25 ZAPATUA

■ **HAURRENTZAKO**

ANTZERKIA ARRASATEN

Kukubiltxo antzerki taldeak haurrentzako Txirrikiz antzerkia eskainiko du Arrasateko Amaia antzokian arratsaldeko 17:00etan.

■ **ARIZMENDI**

TOPAKETAK

Mondragon Eskola Politeknikoan "Biteri" egoitza nagusiko aretoan izango dira topaketak arratsaldeko 18:30etik aurrera.

6-10

■ **PIRINEOETARA**

IRTEERA

Murrukixo mendizale elkarteak Pirineoetara irteera antolatu du abenduko zubirako. Benasque aldera izango da. Interesatuok Murrukixoko kideren batekin harremanetan jarri zaitezke.

■ **ZINE LABURRA**

ARRASATEN

El coronel no tiene quien le escriba, Arturo Ripsteinen film laburra ikusgai egongo da Arrasateko Amaia antzokian 21:30ean.

28 MARTIZENA

■ **HITZALDIA**

Alberto Friasek Euskal Herriatik Euskal hirira hitzaldia emango du 19:00etatik aurrera udale-txe zaharreko aretoan.

IKASTAROA

■ **ESKAPARATEAK**
APAINTZEKO IKASTAROA


Loramendi elkarteak eskaparateak apaintzeko ikastaroa antolatu du. Azaroaren 22, 24, 27, 29 eta abenduaren 1 eta 4ean emango da. Orduategia arratsaldeko 14:30etik 16:30era. Interesatuok Loramendi euskara elkartera zuzendu edo eta 943 77 09 70 telefonora.

IKERKETA SARIAK

■ **EUSKAL GIZARTEAREN ERREALITATE IKERKETARI SARIA.**

Lakuako gobernuak Euskal Herriko errealitate sozio-politikoaren inguruan eginko ikerketa sarituko du. Lanak euskaraz edo erdaraz aurkeztu ahal izango dira. Aurkezteko epea: 2000ko abenduaren 31a. Informazio gehiago Lakuako gobernuan. Lehen saria 1.250.000 pta eta 300.000 pezetako akzesita.

BALINAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Maddi Iregi
Azaroak 19
Zorionak etxekoan partetik.



Xabier Mendizabal
Azaroak 22
Aretxagazetako langileen partetik berandu bada ere zorionak.



Mireia Ignacio
Azaroak 23
Zorionak guraso eta anaiaren partetik.



Ioar Sanz
Azaroak 23
Koadrilakoan partetik zorionak. Ondo pasau eta gutxi gastau.



Oskar Madinabeitia
Azaroak 25
ACDCn ondorioz horrela gelditu da, baina zorionak lagun partetik.



Ainhoa Altube
Azaroak 26
Zorionak etxekoan partetik.



Gorka Dobao
Azaroak 28
Zorionak etxekoan partetik eta ondo pasa eguna.



Nerea Dobao
Azaroak 29
Zorionak etxekoan partetik eta ondo pasa eguna.



Xabier Zubillaga
Azaroak 29
Zorionak etxekoan partetik.



Lurdes Mateo
Azaroak 29
Zorionak zure lagun partetik eta ondo pasa eguna.



Ruben Testa
Azaroak 30
Zorionak zure lagun partetik.

Atal honetan zorion agurrak argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

Txistuak • Txaloak

Ez naiz elizara sarri-sarri joaten den horietakoa, baina joan izan naizenetan eliza konpondu beharrean zegoela konturatu naiz, bai kanpotik eta bai barrutik. Elizaren inguruan mugitzen direnak ere konturatu ziren behar horretaz, eta ikerketa ekonomikoa eta errehabilitazioarena egin zituzten. Konponketa txikiena egiteko ere, dirutza haundia behar da, baina herritarrek ondo erantzun dute, eta hauengandik jaso-tako dirulaguntza 17 milioi pezeta ingurukoa izan da. Herritarrentzat doa ondorengo txaloa, solidarioak izan direlako. Aurrerantzean ere horren eskuzabal jarrai dezazuen animatzen zaituztegu, eliza konpontzeko behar diren 30 milioiak lortu artean.



Jaiotakoak

■ **June Gastañaga Zugasti**
Azaroaren 1ean.

Hildakoak

■ **Manuel Jimenez Palacios**
Azaroaren 11n. 79 urte.

■ **Pedro Iriarte Astola**
Azaroaren 13an. 79 urte.

■ **Dolores Zubizarreta Uribetxebarria**
Azaroaren 16an. 81 urte.

■ **Jose Mari Urzelai Madinabeitia**
Azaroaren 19an. 66 urte.

■ **Angeles Delgado Blanco**
Azaroaren 20an. 89 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Bisita pastoralala

A

ze neska piloa goiko erretratuan. Egun garrantzitsua izan zen hura. Jaime Font Andrew Donostiako lehen gotzaiaren bisita jaso zuten Agustindar elkarteko ikasleek. Bisita pastoralala zela eta, omenaldia jaso zuen gotzaiak egun hartan agustindarren eskutik. Berrogeita hamargarren hamarkada ingurua zen, Ladis fotografoak monjen edifizio aurrean argazkia atera zueneko hura. Neska guztiak lau iladatan jarri zituen, eta zer esanik ez, argazki dotorea atera zuen.

Dantzariak izan ezik, gaintzeko neska guztiak uniforme urdina zeramaten, alkondara txuria eta korbata motaduna.

Bitxikeria modura, zenbat Zubizarreta dauden fija zai-

tezte, tartean hiru Mila Zubizarreta daude.

Goian ezkerretik eskumara: **Maribel Antxia, Begoña Lizarralde, Mari Karmen Iturbe, Mentxu Madinabertia, Mari Castillo Zubizarreta, Begoña Errasti, Rosa Mari Lasagabaster, Aurora Iriarte, Felisa Pagaldai.**

Bigarren iladan: **Lurdes Zubia, Maribel Urzelai, Mila Akizu, Nati Arkauz, Mila Zubizarreta, Sokorro Unanue, Rosa Mari Azkarretazabal, Ana Mari Otxoa, Mari Carmen Uribetxebarria, Pili Zubizarreta, Elia Rodrigerez, Nieves Arana, Rosarito Arze, Ana Mari Iñurategi.**

Hirugarren iladan: **Rosa Mari Elkoro, Mertxe Gorostiaga, Pilar San Migel, Mertxe Idigoras, Maria Je-**

sus Uribetxebarria, Mila Zubizarreta, Pili Urrutia, Mari Karmen Bengoa, Consuelo Arriola, Dionisia Rodrigerez, Pili Makazaga, Aurora Aranzabal, X.

Beheko iladan: **Maribel Iturbe, Itziar Zubizarreta, Mari Karmen Olabe, Arantxa Leanizbarrutia, Elena Eraña, Mari Nati Olabe, Pili Garai, Maria Lucia Arregi, Konsuelo Zubizarreta, Jaime Font Andrew (Donostiako gotzai), Mari Asun Guridi, Mila Zubizarreta, Angelines Martinez, Arantxa Zubizarreta, Arantxa Biain, Lurdes Lopez de Armentia. Jarrita: Rosita Bernal, Mila Urzelai.**

Argazkia: Ramon Elkoro
Informazioa: Ramon Elkoro, Arantxa eta Aurora Iriarte...

focus TDDi
2.060.000 pta.tik hasita




MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es



Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu

grupo



Amuebladora
Mondragonesa